

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 69/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak arautzen dituen Erregelamendua, BATUZ proiektuko zerga-betebeharrei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuak kudeatzeko Erregelamendua eta irabazi-asmorik gabeko entitate mezenasgoaren zerga-araubidea aplikatzeko Erregelamendua.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. 5/2020 Foru Araua onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egin da BATUZ izeneko estrategia integral horren implementazioan, ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzeko, edozein delarik ere haien eragiketen tamaina edo bolumena. Halaber, aurrerapauso bat da zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.

Foru Arau horren artikuluetan zehar, zenbait gai lagatzen ziren edukiaren geroagoko erregelamendu bidezko garapen batera. Zeregin hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 82/2020 Foru Dekretua, irailaren 8koa, BATUZ proiektuaren zerga-betebeharrak garatzen dituen, onartzearen bidez gauzatzen da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzearen bidez, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzearen bitartez, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkion tributuak kudeatzeko Erregelamendua aldatzearen bidez eta, azkenik, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua aldatzearen bitartez.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuan jasotzen diren zenbait manu garatze aldera, honako xedapen hauek onartu dira: alde batetik, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren irailaren 9ko 1482/2020 Foru Agindua, software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen, eta, bestetik, eta, bestetik, 2163/2020 Foru Agindua, abenduaren 14koa, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuarena, BATUZi dagozkion betebeharretatik salbuesteko baimen-prozedura arautzen duena.

Ondasun-entregak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko sistemarekin eta eragiketa ekonomikoen liburuak/erregistroak eramatearekin lotutako prozedurak eta tresnak ezartzeak eta, aldi berean, egoki diren arau-xedapenak berrikusteak berekin dakar zehaztugabetasun batzuk zuzentzea, bai eta zenbait hobekuntza tekniko sartzea ere, arauzko testuak hobeto aplikatu eta ulertze aldera.

Era berean, eta balio erantsiaren gaineko zergari buruzko ahalik eta informazio zehatzena lortze aldera, zerga horren subjektu pasiboan autolikidazio-zirriborroak eskuragarri jartzeari begira (lehen aipatutako uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera), aldatu egiten da BEZaren irizpide bereziaren aukera, uko egitea, baliogabetzea eta, hala badagokio, kutxatik kanpo uztea gauzatzeko epea; epe hori ezarriko da ondorioak izango dituen urte naturala hasi aurreko abenduan.

Beste alde batetik, aldatu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuak kudeatzeko Erregelamenduaren 85.2. artikulua edukia; erregelamendu hori, autolikidazioak zuzentzeko eskaerei buruzkoa, uztailaren 21eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartu zen; horrenbestez, zergadunak tributu bakoitzaren arautegitik



eratorritako itzulketak lortzeko dituen eskubideak edo okerreko sarreren itzulketak edo bermeen kostuaren itzulketa onartzeko likidazio-egintzak onartuko dira, nahiz eta Administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen ahalmena iraungi.

Azkenik, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko erregelamenduan aldaketa bat sartzen da; horren helburua da zehaztea irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren II. tituluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzeko eskaera erakundeak araubide hori aplikatu nahi duen zergaldia amaitu baino lehen aurkeztu beharko dela.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea arau hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2021eko maiatzaren 18ko bileran eztabaiatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.—*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori*

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da apirilaren 8ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 113 bis artikulua 3. paragrafoa, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«3. Zergaren foru-arauko 113 bis artikuluko 2. ataleko a) letran ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat jarriko du zergadunen esku, artikuluko horretako 1. atalean ezarritako betebeharrak betetzen laguntzeko

Aplikazio horren erabilera Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean argitaratzen diren eragiketara eta baldintzetara mugatu ahal izango da, zergadunei aplikatu dakizkiekeen zerga-araubidearen edo inguruabar partikularren arabera.»

2. artikulua.—*Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori*

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, idazkera berria eman zaie abenduaren 23ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 47 bis artikulua 3. eta 4. paragrafoei, halako moldez non honela geratu baitira idatzita:

«3. Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis artikulua 2. ataleko a) letran ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat jarriko du zergadunen eskura, artikuluko horretako 1. atalean ezarritako beharkizunak betetzeko.

Aplikazio horren erabilera Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean argitaratzen diren eragiketara eta baldintzetara mugatu ahal izango da, zergadunei aplikatu dakizkiekeen zerga-araubidearen edo inguruabar partikularren arabera.

4. Zergadunak salbuetsita geratuko dira Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. atalean ezarritako betebeharrak betetzetik, Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis artikulua 3. atalean aipatzen diren eragiketei dagokienez.

Era berean, Zergari buruzko Foru Arauaren 12. Artikuluan xedatutakoaren arabera eragiketak osorik edo partzialki salbuetsita dituzten erakundeak, bai eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei aplikatu beharreko zerga-araubide bereziari (irabazteko asmo-



rik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren II. tituluan arautua) atxikitako erakundeak ere, salbuetsita egongo dira Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. atalean ezarritako betebeharrak betetzetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketei dagokienez (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikuluko Bat ataleko 8., 11., 12., 13. 14. eta 28 zenbakietan xedatutakoa betetzeko).»

3. artikulua.—Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-betebehar formalak araupe-tu dituen Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori

Lehenengoa: 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupe-tu dituen Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu baitzen:

Bat. 39 bis artikulua 1. atalaren lehenengo paragrafoa aldatu egiten da, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 114. artikulua 1. atalaren lehen paragrafoan aipatzen diren pertsona fisikoek eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izan beharko dute nahitaez.»

Bi. 39 quinquies artikulua 2. atalaren laugarren gidoia aldatu egiten da, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«— Ondasunaren balioa amortizazioaren ondorioetarako, amortizazio-sistema eta, hala badagokio, amortizazio metatua.»

Hiru. 39 sexies artikulua 1. atalaren 2) azpiatala aldatu egiten da, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«2) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 9. artikuluko 3. zenbakian eta 16. artikuluko 2. zenbakian jasotako ondasun-transferentziak eta Europar Batasunaren barruko eskuraketak. Kasu bietan barne hartzen dira 9. artikulua 3. zenbakiko e), f) eta g) letretan aurreikusten diren salbuespenak.»

Lau. 39. quinquiesdecies artikulua 1. atalaren 2) azpiatala aldatu egiten da, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«2) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 9. artikuluko 3. zenbakian eta 16. artikuluko 2. zenbakian jasotako ondasun-transferentziak eta Europar Batasunaren barruko eskuraketak. Kasu bietan barne hartzen dira 9. artikulua 3. zenbakiko e), f) eta g) letretan aurreikusten diren salbuespenak.»

Bost. 39. septiesdecies artikulua 3. atala aldatu egiten da, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«3. 39. quinquiesdecies artikulua aipatzen diren eragiketak zazpi eguneko epean idatzi beharko dira, aipatzen diren ondasunak igortzen edo garraiatzen hasten direnetik aurrera.»

Sei. Aldatu egiten da 39 novodecies artikulua 2. atalaren lehen gidoia, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«— Fitxategiak aipatzen duen zergaldia, haren hasiera- eta itxiera-datak adierazita.»

Zazpi. 39 novodecies artikulua 6. atala gehitu zaio; atal horrek hurrengo idazkera izango du:

«6. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 12. artikulua 2. atalean aipatzen diren zergapekoek, Sozietateen gaineko Zergaren aitortzea aurkeztu behar dutenek, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek aplikatu beharreko zerga-araubide bereziari atxikitako entitateek (martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzkoak, II. tituluan arautzen du araubide hori), ez dute kontabilitate-mugimenduen kapitulua osatzen duen fitxategia aurkeztu beharko.



Hala ere, bere borondatez aurkeztu ahal izango dute fitxategi hori, Ogasun eta Finantza Sailak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 126. artikulua 7. atalean aipatzen den Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenaren zirriborroa eskura jarri ahal izan dezan.»

Bigarrena: Aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak arautzen dituen Erregelamenduaren 18. artikuluko 4. atalaren c) letraren hirugarren paragrafoa, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa-irizpidearen araubide bereziaren aukera, uko egitea, errebokatzea eta, hala badagokio, baztertzea eragin behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egin ahal izango da.»

4. artikulua.— Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen da; Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori

Aldatu egiten da uztailaren 21eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuak kudeatzeko Erregelamenduaren 85. artikulua 2. atala, halako moldez non honela geratzen baita idatzita:

«2. Autolikidazioak zuzentzeko eskabideak organo eskudunari zuzenduko zaizkio, berriazko antolamendu araudiarekin bat etorritik.»

Eskabidea kasuan kasuko autolikidazioa aurkeztzen denean egin ahalko da bakarrik, eta Zerga Administrazioak behin betiko likidazioa egin baino lehen, edo, bestela, Zerga Administrazioak, likidazio bitartez, zerga zorra zehazteko duen eskubidea edo kasuan kasuko itzulketa eskatzeko eskubidea preskribatu baino lehen.

Zergadunak ezingo du autolikidazioa zuzentzea eskatu, kudeaketa prozedura edo ikuskapen prozedura bat izapidetzen ari denean eta haren xedeak aurkeztutako autolikidazioaren xede den zerga betebeharraren hartzen badu, betiere, alegazioak egiteko eta izapidetzen ari den prozeduran egoki irizten diren dokumentuak aurkezteko eskubidearen kaltetan izan gabe. Agiri horiek aintzat hartu beharko ditu izapideak egiten dituen organoak.»

5. artikulua.— Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 55/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgoaren zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua aldatzea

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, beste idazkera bat eman zaio irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgoaren zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamenduaren 8. artikulua 4. atalaren lehenengo paragrafoari. Erregelamendu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 55/2019 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, eta honela geratu da idatzita:

«4. Eskabidea Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko da, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta edo aldaketa eskatzeko dagokion deklarazioaren bidez, erakundeak zerga-araubide berezia —irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren II. tituluan jasoa— aplikatu nahi duen lehen zergaldia amaitu baino lehen.»

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta beronen artikuluetan ezarritako ondorioak izango ditu.

Bilbon, 2021eko maiatzaren 18 an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ